

Eskubaloia

Garaipenik zailena

Espainia finalerdietan sartu da, Alemaniari gol batez irabazita; Barrufet eta Guijosa izan ziren onenak, oso partidu gogorrean

Espainia	Alemania	Espainia.- Barrufet, Xepkin, Guijosa (9, 1p), Ortega (3), Urdangarin (3), Duixebaev (3), Lozano (2); Masip (6, 5p), Olalla (1), Perez eta Nuñez.
27	26	Alemania.- Holpert, Bezdicek (1), Kretschmar (6), Schwarzer (3), Petersen, Zerbe (3), Roos (5); Van Behren (4, 1p), Baur (3, 2p), Kunze (1), Wenta eta Fritz.
MARKAGAILUA: 1-2, 3-4, 7-5, 9-5, 10-12, 11-13 (atsedenaldian); 13-15, 16-19, 19-19, 22-21, 24-24, 27-26.		
ARBITROAK: Garcia eta Moreno (Fra). Kanporatuak: Duixebaev, Masip, Urdangarin, Bezdicek, Von Behren eta Roos. Txartel gorria Ortegari.		

Erredakzioa / Donostia

RAFAEL GUIJOSAK hiru segundoren faltan sartutako golari esker sailkatu da Espainia finalerdietara. Bera eta Barrufet atezaina izan ziren onenak, eta erabaki ere, Guijosak erabaki zuen.

Erabat parekatua eta oso gogorra izan zen partidua. Lehen zatian 10-6 aurreratu zen Espainia, baina Alemania bi goleko aldearekin iritsi zen atsedenaldira (11-13), 0-6ko batez bestekoa lortu ondoren. Lerroko defentsan bikain aritu ziren alemaniarak, gogor tarteka, eta 6-0ko sistema kasik gaindiezina bilakatu

zen Espainiarentzat. Hor eman zion buelta Alemaniak aldats gora jarri zitzaion partiduari.

Bigarren zatian ere atsedenik gabeko lehiak jarraitu zuen, eta Guijosak eman zion bizia Espainiari, hegaletik barnealdi bikainak eginez. Emozioa ere pil-pilean izan zen. Erasoan presaka hasi ziren espainiarrak, eta azken minutuetan aurretik zen Alemania; baina Lozanok berdindu, eta Kretschmarrek langara jaurti zuen hurrena. Azken jokaldian, hor agertu zen berriro Guijosa, garaipenaren gola sartzeko hegaletik, hiru segundoren faltan.



Talant Duixebaev eta Iñaki Urdangarin, Espainiaren garaipena ospatzen.

Egitaraua

ASTEAZKENA

09:00: Atletismoa. Finalak: 800 metroak (G), 100 metro hesiak (E), diskoa (E) eta 400 metro hesiak (G eta E); finalerdia: 1.500 m (G); sailkapenak: pertika eta luzera jauzia (G); dekatloia: altuera jauzia eta 400 metroak; bigarren saioa: 200 m (G eta E); lehen saioa: 5.000 metroetan (G).

09:20: Boleibola. Final-laurdenak (G).

10:15: Waterpolo. Lehen fasea: Alemania-EEBB eta Australia-Espainia (G).

10:30: Beisbola. Finala


10:30: Taekwondo. Finalak eta brontzeak: 49 kg. (E) eta 58 kg. (G).

10:30: Boxeo. Final-laurdenak: 51, 57, 63.5, 71, 81 eta 91 baino gehiago (G).

11:00: Igeriketa. Jauziak. Finalerdia: 3 metroko tranpolina (E).

11:00: Saskibaloia. Final-laurdenak (E).

23:30: Hipika. Finala: jauziak taldeka; sailkapena: jauziak banaka.



Wilson Kipketer danimarkarra 800 metroetako finalean ariko da gaur.

OSTEGUNA

00:00: Hockeya. Finalerdia

00:00: Piraguismoa. Finalerdia: 1.000 metro K1, C1, K2, C2 eta K4 (G) eta 500 metroetan K4 (E).

00:00: Atletismoa. Finala: 20 km martxa (E); dekatloia: 110 m hesiak eta diskoa; sailka-

penak: altuera jauzia (E).

00:00: Taekwondo. Atarikoak: 57 eta 68 kg. (E).

00:30: Bela. Finn (G), Europa (E), Star eta Laser.

00:30: Borroka librea. Atarikoak: 54, 63, 76 eta 97 kg.

01:00: Igeriketa. Jauzi sinkronizatuen finalak: 10 m

plataforma (E) eta 3 m tranpol. (G).

01:00: Boleibola. Sailkatuak (G).

03:30: Boleibola. Sailkatuak (G).

03:30: Eskubaloia. Final-laurdenak (E).

04:00: Tenisa. Finalak: Venus Williams-Dementieva (E), eta Woodbridge-Woodforde (Aus) eta Lareau-Nestor (Kan).

05:30: Taekwondo. Atarikoak: 57 kg (E) eta 68 kg. (G).

06:00: Saskibaloia. Final-laurdenak (G).

06:30: Atletismoa. Finalak: luzera jauzia (G), 200 metro (G eta E) eta pisua (E); finalerdia: 1.500 metro (E); dekatloia: pertika jauzia, xabalina eta 1.500 metroak.

06:30: Gimnastika erritmikoa. Sailkapena taldeka.

07:00: Igeriketa sinkronizatua. Taldekako saio teknikoa.

08:00: Borroka librea. Kanporaketak.

08:00: Futbola. Finala: EEBB-Norvegia; 3-4 postuetarako: Brasil-Alemania (E).

Suedia, Jugoslavia eta Errusia ere finalerdietara

Erredakzioa / Donostia
FINAL-LAUDENETAN faboritoek ez zuten huts egin: Suedia, Jugoslavia eta Errusia dominetarako lehian ariko dira. Finalerdietan Suedia-Espainia eta Jugoslavia-Erussia izango dira partiduak, etzi.

Suedia-Egipto: 27-23 • Uste baino gehiago kostatzaion Suediari Egipto mendean hartzea. Aurrea ez zuten inoiz galdu munduko txapelduak, baina afrikarren defentsa gogorrak arazoak sortu zitkien. Vranjes (7) eta Thorsson (6) izan ziren golegile onenak Suedian. Partiduko onena, berriz, Zaky (10).

Jugoslavia-Frantzia: 26-21 • Hiru golez aurreratu zen Frantzia (2-5), baina gero Jugoslavia ondo nagusitu zen. Richardson erabat ito zuten —golik ez zuen sartu—, eta azkenean zuloa egin zuen Jugoslaviak.

Errusia-Eslovenia: 33-22 • Aidean irabazi zuen Errusiak, hasieran Esloveniak ondo eutsi zion arren (5-5). Onenak Koktxarov (7 gol) eta Voronin (5) izan ziren.

PROBA GARRANTZITSUENAK

ASTEAZKENA

09:00etan Atletismoa. Finalak: 800 metroak (G), 100 metro hesidunak (E), diskoa (E) eta 400 metro hesiak (G eta E).

OSTEGUNA

06:30etan Atletismoa. Finalak: luzera jauzia (G), 200 metro (G eta E) eta pisua (E).

EUSKAL KIROLARIAK

ASTEAZKENA

09:00etan Atletismoa. Pertika jauzia: Montxu Miranda.

OSTEGUNA

00:00etan Atletismoa. Altuera jauzia: Marta Mendia.

06:30etan Gimnastika erritmikoa. Almudena Cid, Lorena Gurendez, Beatriz Nogales eta Igone Arribas.

TELEBISTA KATEAK

TVE 1 6:00-8:00, 1:00-6:00.

La 2 8:00-14:00, 15:45-22:00.

F 2 5:30-6:30, 9:30-12:55, 1:05-06:00.

F 3 6:30-9:35, 12:50-14:50, 23:10-1:05.